

C. Zumárraga 7,
Entrada Maestro Icía
48006 Bilbao
t: 94 679 22 92
m. 645 005 426
info@lataller.com
www.lataller.com

Y EL ARDOR

GEMA INTXAUSTI

Hitzik gabe nago y *el ardor* erakusketaren inguruko areto-orri honetarako. Beharbada, izenburua *Polanski y el ardor* musika-taldearen izenetik maileguan nola hartu nuen azaltzen hasiko naiz. 2021ean egindako collage bat izendatzeko erabili nuen. Collage honek F. Plamínková senatoriaren figura eta honek Hitlerri Txekoslovakia inbaditzea leporatuz bidalitako gutun ireki bati egiten dio erreferentzia. Han izan nintzenean, bereganako interesaz gain, deigarria iruditu zitzaidan nola gogoratzen duten Legebiltzarrean bere omenez egindako plaka xume batekin.

Plaka honek, ispilu baten islak bezala, monumentuekin dudan arazoa eta haiekin identifikatzeko dudan zailtasuna itzultzen zidan. Agian zerbait pertsonala da, baina sinbolo batek pertsonak ikustea eragozten dit, idulkiaren beste aldean dauden zibilak.

Plamínkováren biografian arakatzekak, Clara Campoamor itzuli zidan. 1927.en urtean, Clara, senatari txekiarrek Madrilen emandako hitzaldira joan zen. Ostean, geltokira gerturatu zen Plamínková agurtzera, honek sorterrira itzulerako bidaiari ekin aurretik. Handik denbora batera bigarren marrazki bat egin nuen. Oraingo honetan, collage-monumentu bat Clararen omenez. Ez da inoiz monumentu bat izango, marrazki bat baizik.

Collage horietan lan egiten nuen bitartean, 2022ko otsailean Putinek Ukraina inbaditu zuen. Collageak egiten ditudan bitartean orain monumentuak begiratzen ditut eta neure buruari galdetzen diot zer pentsatzen duten zibilek hauei buruz. Zibilei buruz gogoeta egiten dudan bitartean, Ukrainan gerra amaitzen denean beste monumentu batzuk egongo direla pentsatzen dut. Eta, Gernikan zehar nabilela, Paul Eluarden poema bat daraman plaka oroigarri bat ikusten dut, eta haren ondoan Dulcie September aktibistari eskainitako bigarren bat, 1988ko martxoaren 29an Parisen hil zuten ANCKo (Afrikako Kongresu Nazionala) ordezkaria.

y *el ardor* erakusketa amaitzeko, memoria kolektibo gisa funtzionatzen duen Gernika-Lumoko planoaren eta Dulcie Septemberen inguruko aluminiozko hiru xafaz osaturiko obra bat dago. Aldi berean, Palestina genozidio baten biktima da. Eta neure buruari zergatik galdetzen dioten bitartean, Gazan basakeria amaitzean beste monumentu batzuk egongo direla pentsatzen dut, baina agian plaka oroigarriak irakur ditzakeen zibilik ez da egongo. Hitzik gabe nago.